

AZERI-ZEPOA

1. ZER DA PIEZA HAU?:

Ikusten duzuen pieza Larratz baserria (Landarbaso, Donostia) jatorri duen zepoa da, XX. mendekoa. Erosketa bidez iritsi zen Gordailura, Josu Tellabide etnologo donostiarrari eginikoan, hain zuzen ere.

Azeri edo basakatuak harrapatzeko zepoa da honakoa eta funtzionamendu nahiko erraza du. Burdinezko ahoa eta buztana ditu eta animaliak ahoaren erdiko txapa zirkular mugikorra ukitzean, mugimenduak zirkuluerdi formako bi harrapatzeko "masailezur" horzdunak aktibatzen ditu, animalia bertan harrapatuz. XX. mendera arte herri askotan ehizarako baino defentsarako erabilitako zepoen adibide da Igartubeitin erakusgai duguna.



Iturria: Gordailua.

2. EHIZA BASERRIAN, ZERTARAKO?

Iraganeko baserri bizitzan ehiza ez zen izaera ekonomiko zein produktiboko jarduera bezala hautematen, aitzitik, baserrian bizi ziren abereak babesteko jarduera bat zen. Abere horiek, hain zuzen, maiz otsoak, azeriak, hartzak... bezalako predatzaileengatik mehatxatuak izaten ziren, eta, hortaz, hauek babesteko moduak topatzea ezinbestekoa zen baserritarrentzat. Era berean, artzaiek ere modu mugatuan baina sarritan erabilitako teknika da honakoa, artaldeetan galerak gauzatzen zituzten pizti horien aurkako erremedio defentsibo gisa.

Azken hamarkadetan ehiza jarduera ludiko bihurtu den arte, ehiza oso errotuta egon da Euskal Herriko baserri, auzo eta herri askotako egunerokoan. Ehizatutakoa jaki gisa izateaz gain helburua gizakiarentzako arriskutsuak ziren espezie horiek (otsoak, azeriak, lepazuriak, lepahoriak, basakatuak, karraskariak edota otsoak) ezabatzea edo kontrolatzea zen. Ez zen dibertsiorako jarduera, ehiztariekin gertatu ohi den bezala, baizik eta biztanleria osoari kalte egiten zion arazo bati ematen zitzaion erantzuna.

Azeriak ehizatutako animalien artean ardiak eta oiloak izaten ziren baserritar eta artzainentzako kaltegarrienak. Erabiltzen zuten modu nagusietako bat, beraz, zepoen edo tranpen bitarteko ehiza zen.

3. ALIMAÑEROAK:

Gazteleraz alimañero esaten zitzaion sasoika kontratatzen ziren pizti ehiztariei. Une zehatzetan kontratatzen zen langile espezializatu hau, denbora baterako eta enkargu edo ordainsari bidez. Bere eginkizuna herriko eta inguruetako pizti kaltegarri guztiak harrapatzen zetzan, zeinak bertako baserritar, nekazari eta abeltzainentzat kaltegarriak baitziren. Behar adina hilabete ematen zituen herrian, harrapariak akabatu arte.

Kasu batzuetan udalak egiten zuen alimañeroaren kontratazioa. Modu orokorrean herriaren ongizatea arriskuan zegoenetan egiten zen hori. Besteetan, artzain taldeak izaten ziren alimañeroaren laguntza eskatzen zutenak, guztien mehatxu zen arazo baten aurrean elkartu eta guztien artean ordaintzen zioten alimañeroari. Baliabide gutxi zituzten pertsonentzat alimañero moduan jarduteak aparteko ordainsari edo soldata bat jasotzea esan nahi zuen.

Udaletxeak eman ziezaiokeen sariaz gain hainbat lekutan alimañero-ak aukera izaten zuen etxez etxe ibiltzeko, esker onez, dirua, arrautzak edota bestelako jakiak jasoz.

Bakoitzak bere teknikak eta prozedimenduak zituen, askotan sekretuak eta gainontzekoekin elkarbanatzen ez zituztenak. Adituak ziren animalien aztarnak arakatzen, euren mugimenduak eta ohiturak ezagutzen zituzten, ingurunea bikain ezagutzen zuten, tiratzaile ezinhobeak ziren eta mota guztietako tranpak ezagutzen zituzten. Ordainketa dirutan edo espezieetan egiten zen, hau da, artzainek hainbat ardi ematen zizkioten alimañero-ari sasoi bakoitzean.

4. AZERI-EHIZA:

Azeria animalia kaltegarritzat hartu izan da ardi- eta ahuntz-aziendentzat, arkumeak eta antxumeak, eta baita ardiak ere, lapurtzeko zein hiltzeko zuten (eta duten) trebetasunarengatik. Halaber, oilategietan ere sartzen zen, eta beraz, baserriko abere askorentzat mehatxu zen. Ondorioz, artzainak gualdean artaldeak herriko ukuiluetan giltzapetzera behartuta ikusten zuten euren burua sarritan.

Su-armen erosketa eskuragarri bihurtu zen arte, piztiak harrapatzeko erabilitako teknika gehienak baliabide eskasi handiaren adierazle dira. Tranpak ipintzea, pozoina erabiltzea eta uxaldiak egitea ziren sistema ohikoenak. Kasurik okerreanean, ordea, azeria edota otsoa izutzen saiatzea izaten zen irtenbide bakarra.

Azeriak ehizatze oso ohikoa izan da zepoen erabilera. Hauek otsoak harrapatzekoak baina zertxobait txikiagoak dira. Kontu handiz garbitu behar dira ipini aurretik, izan ere azeriek usaimen fina dute eta gai dira zepoak hautemateko, agerian zein lurpean daudenak ere. Burdina, erdoila, gizakion usaina edota aurretiaz harrapatutako azeriaren arrastoa erraz sumatzen dute. Hortaz, zepoa garbitzeko ura eta errautsa erabiltzen zen, ondoren oihal batekin igurtziz eta lehortuz.

Normalean zepoa animalia gortekuen aurrean jartzen zen. Irtenbidea estutzen zen azeria tranparen gainetik pasatzera behartzeko. Helburua irtenbide ahalik eta gehien ixtea da azeriak tranpa zapaldu dezan. Azeri-zuloko irteera zabalik utziz gero azeriak salto egingo luke zepoaren gainetik.

Zulo bat egiten zen lurpean, gortekuen parean, eta bertan sartzen zuten zepoa. Kontu handiz muntatzen zen eta disimulatuta gera zedin goroldioz eta inurritegiako lurrez (biak pisu gutxiko materialak) estaltzen zen zepo ingurua. Gainetik belarra eta hostoak ere botatzen zitzaizkion ongi estalita gera zedin.

Beste ehiztari batzuek nahiago izaten dute aire zabalean ehizatu. Azeriaren arreta erakartzeko intentzioz zepoarekin batera animalien soberakinak erabiltzen zituzten. Azeriak haragi horren usaina hartzen du eta zuzenean joaten da jakira, zepoan harrapatuta geratuz.

Behin harrapatuta, garrantzitsua zen zepoa kontu handiz kentzea, izan ere larrua edo ilajea oso hondaturik egonez gero gutxiago ordaintzen zitzaion alimañero-ari. Azeriak salmentara bideratzen ziren, euren haragia, ilajea edota buztanak beste produktuengatik.

5. AZKEN GOGOETAK:

Hain sistematizatuta zegoen azeri ehizan argi erakusten da zein zen garaiko pertzepzioa azeri eta piztitzat hartutako animaliekiko: espezie kaltegarri kontsideratzen ziren, hortaz, euren kontrola beharrezkoa zen.

Denborarekin, azken hamarkadetan batez ere, animalia hauekiko dugun hautematea aldatu egin da. Espezie harrapakari ugariren desagertzeak eta biodibertsitatearen garrantziak, beste aspektu batzuen artean, begirada aldaketa bat eta ingurumen-kontzientziaren garaketa eragin dute.

6. BIBLIOGRAFIA

Díaz, M. S. (2002). La ganadería a lo largo del siglo XX en el Valle de Carranza (Bizkaia). *Anuario de Eusko-Folklore*. 43 t. 131-182 orr.

Garayo, J. M eta Garayo, G. (2008). Persecución del zorro en Álava (1801-1980). *Naturzale*. 19 zk. 39-70 orr.

LASA, J. J. (1958). Las alimañas de los montes de Aránzazu. *Munibe*. 10 bol. 163-167 orr.

López de Guereñu, G. (1957). La caza en la montaña alavesa. *Munibe*. 9 bol. 226-262 orr.

Satrústegui, J. M. (1975). El cebo para la caza del zorro en un documento vasco del siglo XVIII. *Fontes Linguae Vasconum*. 20 zk. 237-246 orr.

Satrústegui, J. M. (1978). La caza del zorro en el País Vasco. *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*. 29 zk. 201-224 orr.

Soraluce, R. (1898). La caza. *Euskal-Erria: revista bascongada*. 39 t. 400-407 orr.